

**NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAK**  
**2018KO ABENDUAREN 14an EGINDAKO BATZAR NAGUSI ARRUNTAREN AKTA**  
**NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOA**

**BERTARATUAK:**

*Oibarko Udala  
Allingo Udala  
Alloko Udala  
Andosillako Udala  
Antsoaingo Udala  
Agoizko Udala  
Aranguren Ibarreko Udala  
Arbizuko Udala  
Artazuko Udala  
Atezko Udala  
Aurizko Udala  
Barasoaingo Udala  
Barbaringo Udala  
Bargotako Udala  
Beintza-Labaiengo Udala  
Beraskoaingo Udala  
Berbintzanako Udala  
Beteluko Udala  
Bidaurreteko Udala  
Buñuelgo Udala  
Burlatako Udala  
Cabanillasko Udala  
Cadreitako Udala  
Caparrosoko Udala  
Kasedako Udala  
Oltza Zendeako Udala  
Cintruenigoko Udala  
Zizurko Udala  
Cortesko Udala  
Enerizko Udala  
Lizarrako Udala  
Etxauriko Udala  
Ezporogiko Udala  
Funesko Udala  
Fustiñanako Udala  
Goñiko Udala  
Gesalazko Udala  
Girgillaoko Udala  
Irañetako Udala  
Itzako Udala  
Lakuntzako Udala  
Elizagorriko Udala  
Ledeako Udala  
Lizoain-Arriasgoitiko Udala  
Lodosako Udala  
Melidako Udala*

Iruña Park hotelean (Arcadio María Larraona, 1, Iruña), bi mila eta hemezortziko abenduaren 14an, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, NUKFren Batzar Nagusi Arrunta hasi da, aldameneko toki entitateen ordezkariak bilduta. Batzarraren buru den mahaia honako hauek osatu dute: Pablo Azcona Molinet jn., Raquel Garbayo Berdonces and., Jesús María Rodríguez Gómez jn. eta Berta Enrique Cornago and., lehendakaria, lehen lehendakariordea, bigarren lehendakariordea eta idazkari nagusia, hurrenez hurren. Hona hemen

**GAI-ZERRENDA:**

- 1.- 2017/12/15eko eta 2018/6/22ko batzarretako aktak onestea.
- 2.- NUKFren 2018ko Kudeaketa Txostena onestea.
- 4.- NUKFren 2019ko Jarduketan Programa onestea.
- 5.- NUKFren 2019ko Aurrekontua onestea.
- 9.- Galde-eskeak.

Presidenteak ongietorria eman die joandakoei, eta mahaiko kideak aurkeztu ditu.

**1. gaia.- 2017/12/15eko eta 2018/6/22ko batzarretako aktak onestea.**

Deialdiarekin batera igorrita 2017ko abenduaren 15eko Batzar Nagusi Arrunteko aktaren kopia eta 2018ko ekainaren 22ko Ezohiko Batzar Nagusiko aktarena, alde zuzenetik irakurri beharrik gabe, lehendakari jaunak galdetu du inork oharrik egin nahi dien aktei.

Batzarraren onespenera jarri da 2017ko abenduaren 15eko Batzar Nagusi Arrunteko akta.

Aho batez,

Mendigorrako Udala  
Milagroko Udala  
Eloko Udala  
Muesko Udala  
Murillo el Frutoko Udala  
Nabaskozeko Udala  
Odietako Udala  
Olaztiko Udala  
Erriberriko Udala  
Olorizko Udala  
Orkoiengo Udala  
Oroz Beteluko Udala  
Ribaforadako Udala  
San Adriango Udala  
Zangozako Udala  
Santakarako Udala  
Sunbillako Udala  
Tafallako Udala  
Tebas-Muru Artederretako Udala  
Torralba del Rioko Udala  
Torres del Rioko Udala  
Ultzamako Udala  
Untzueko Udala  
Urraulgoitiko Udala  
Urraulbeitiko Udala  
Eguesibarko Udala  
Ollarango Udala  
Vianako Udala  
Villamayor de Monjardingo Udala  
Villatuertako Udala  
Atarrabiako Udala  
Zizur Nagusiko Udala  
Arizko Kontzejua  
Agezako Kontzejua  
Azparrengo Kontzejua  
Zizur Txikiko Kontzejua  
Etxagueko Kontzejua  
Enderizko Kontzejua  
Ezkirozko Kontzejua  
Eugiko Kontzejua  
Gazolazko Kontzejua  
Itzalleko Kontzejua  
Muru Artederretako Kontzejua  
Otiñanoko Kontzejua  
Rocaforteko Kontzejua  
Ustaizeko Kontzejua  
Hiriberri Deierriko Kontzejua  
Ziako Kontzejua  
Iruñerriko Mankomunitatea  
Nafarroako Errege Bardeako  
Batzordea  
Iratiko Hiri Hondakin Solidoen  
Mankomunitatea  
Zangoza Eskualdeko Zerbitzuen  
Mankomunitatea  
Erriberri Aldeko Oinarrizko Gizarte  
Zerbitzuen Mankomunitatea

**ERABAKI DA**, 2017ko abenduaren 15eko Batzar Nagusiko akta onestea.

Segituan, Batzarraren onespenera jarri da 2018ko ekainaren 22ko Ezohiko Batzar Nagusiko akta.

Aho batez,

**ERABAKI DA** 2018ko ekainaren 22ko Ezohiko Batzar Nagusiko akta onestea.

## **2. gaia.- NUKFren 2018ko Kudeaketa Txostena onestea**

Lehendakariak aurten landutako gai nagusien erreposoa egin du.

Azpimarratu du, lehenik, Toki Maparen Berrantolaketa eta NUKFk egindako zuzenketak Parlamentuko talde guztiei bidali izana. Zuzenketa horietan joan den ekaineko Batzarrean onetsitakoak bildu ziren baina oraindik ez dira Parlamentura igorritako proiektuan agertzen. Zuzenketak bidaltzearen helburua izan zen taldeek jasotzea eta Parlamentuan aurkeztu ahal izatea.

Era berean, gogoratu du oraindik epea zabalik dagoela zuzenketa gehiago aurkezteko eta Nafarroako Kontseiluak oraindik ez duela horren inguruko txostena egin.

Bigarrenik, hauteskunde elkarteen arazoa azpimarratu du 2015eko hauteskunde kanpainako gehieneko gastuarekin lotuta.

Etorkizunean arazoa konpontzeko, gai horren inguruan egindako jarduketan erreposoa egin du.

Ondorengoak aipatu ditu: hauteskunde elkarteekin izandako bilerak, Kontuen Auzitegiarekin egindako gestioak, Gorteetako ordezkariarekin eta Nafarroako Parlamentuko taldeekin izandako bilerak eta Nafarroako Parlamentuko lehendakariari hauteskunde araudia aldatzeko bidalitako proposamena, Kongresuan eta Senatuan tramitatu dezan.

Horretaz gain aipatu du Espainiako Udal eta Probintzien Federazioko Idazkari Nagusiarekin izandako bilera Federazioaren babesa eta aholkularitza eskatzeko eta arazoa pairatzen duten hauteskunde elkarteekiko babesa ere eskatzeko.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak NUKFri igorri dizkion lege-testuen errepassoa ere egin du lehendakariak eta testu horiek federazioaren barnean lantzeaz gain Departamentuekin ere landu direla adierazi du. Besteak beste, honakoak gogora ekarri ditu: Gainbalioen lege berria, Toki Inbertsioen Planaren aldaketa, Berdintasunerako Legea eta Irisgarritasun Unibertsalaren legea.

Horretaz gain, NUKFk sortutako lantaldeen jarduna hizpide izan du eta, besteak beste, 0-3ko lantaldea, Herritarren Partaidetzakoa eta Toki Mapa Berrantolatzeko sortutakoak aipatu ditu haien jarduera eta helburuekin jarraitu dutenak.

Era berean, aurren sortutako bi talderen berri eman du: Bata Elizak immatrikulatutako ondarearen ingurukoa eta bestea NUKFren ildo estrategikoak egiteko. Azken horrek diagnostikorako lanak hasiak ditu eta urtarrila amaitu baino lehen bukatuta egon beharko lirateke.

Zerbitzuei dagokionez, ohikoak direnak eman dira: aholkularitza, komunikazioa, informazioa, langileak hautatzeko prozesuetarako laguntza, garapenerako lankidetzak, %1,5eko tasaren kudeaketa, langile eta hautetsien prestakuntza etab.

Hitza eman zaie bertaratutakoei:

Lehen lehendakariordea eta Cintruenigoko alkatea den Garbayo andreak hitza hartu du esanez Toki Araubideko Foru Batzordeari txostena egiteko aurkeztu zaizkion proiektu arauemaile askoren kontra bozkatu beharra izan duela udalentsakoen ez zirela iritzita. Horregatik dio kudeaketa txostenaren kontra bozkatuko duela.

Esparza jaunak, Kasedako alkateak, adierazi du kontra bozkatuko duela, gehienbat, Inbertsio Planen inguruan egindako kudeaketagatik. Izan ere, ez baitzaio ongi iruditzen inbertsio finantzarioki jasangarrietarako dauden laguntzen inguruan informazioa irailean jasotzea eta abenduan amaituta egon behar izatea. Ontzat jo du hogeita bost milioi egotea inbertsio mota horietarako baina egun zalantza asko dagoela esan du.

NUKFk horren inguruan gehiago egin behar zukeela uste du.

Kudeaketa txostenari buruz eta Toki Araubideko Foru Batzordera eramandako gai askoren inguruan toki entitateek duten aldeko jarrerari helduta, lehendakariak adierazi du aurretik gai horiek teknikoki eta politikoki landu direnez horrek ekarpenak eta hobekuntzak egitea ahalbidetu duela eta txostena kontrakoa izanzen zela ikusita askotan gai-zerrendatik zenbait gai kendu egin direla.

Inbertsio jasangarrien kudeaketaren inguruan esan du epeak ez direla Federazioaren gustukoak baina ezin direla hogeita bost milioi galdu.

Bere aburuz, NUKFren lana zuzena izan da prozeduraren inguruko informazioa eta argibideak eskatuta. Hala uste du ere bai PLENA plataformari dagokionez. Norbait arrazoi horrengatik epez kanpo geldituko balitz neurriak hartuko zirela adostu baitzen.

Batzar Nagusiaren onespenera jarrita,

Kontrako botoak hogeita zazpi izanik eta abstentzioak, berriz, bat,

Gehiengoz,

#### **ERABAKI DA:**

2018ko Kudeaketa Txostena onestea.

### **3. gaia - NUKFren 2019ko Jarduketaren Programa onestea**

Lehendakariak proposatzen den programaren inguruko erreposoa egin du.

Batetik, datozen maiatzaren 26ko udal hauteskundeei begira egin beharko diren jarduketak izan ditu hizpide. Besteetan bezalaxe, toki entitateei laguntza eta aholkularitza emanen zaie hauteskunde prozesuan zehar baita udalbatza berriak osatzeko garaian ere.

Udalbatza berriak osatu ondoren, hautetsi berrientzako prestakuntza zehatza eskainiko da. Prestakuntzak izaera orokorreko lehen jardunaldi batzuk izanen ditu eta ondoren ikastaro zehatzagoak egingen dira udal jarduneko arlo guztiak lantzeko asmoarekin.

Bestalde, udalbatzak osatzen direnean, Federazioak bere organoak berritu egingen ditu.

Lehendakariak esan duenez, Toki Administrazioaren Berrantolaketa lanean jarraitu beharko du Federazioak Gobernuaren eta Parlamentuaren aurrean toki entitateen ordezkari-lanak eginez berrantolaketa hori garatzeko eta martxan jartzeko.

Transferentzia arrunten eta kapital-transferentziaren funtsak berritzeari ere ekin beharko zaio, horiek arautzen duten legeen indarraldia 2019an bukatzen baita.

Azkenik, lehendakariak administrazio elektronikoa eta toki entitateetan ezarpena izan ditu hizpide.

Adierazi duenez, hasitako laguntza jarduketekin jarraitu beharko da eta, horretarako, zenbait koordinazio eta prestakuntza jarduketa egitea baloratzeaz gain, ordezkari-lanak egin beharko dira Nafarroako Gobernuarekin, diputazio izaera duen aldetik.

Ondoren, hitza eman zaie bertaratutakoei:

Beraskoingo Udaleko ordezkariak hartu du hitza. Lantalde berri bat sortzea proposatu du, izapidetzen ari den Politika Linguistikoaren Legean parte-hartze aktiboagoa izateko.

Gai garrantzitsua dela uste du eta ona litzatekeela udalek haien herritarrekin eztabaidatu ahal izatea.

Oltza Zendeako Udaleko ordezkariak, berriz, hauteskunde elkarten inguruan dio B plan bat edukitzea gustatuko litzaiokeela hauteskundeetako gastuaren muga finkatzen duen araudia aldatzea lortuko ez balitz.

Era berean, berdintasun teknikariak edukitzeko beharra adierazi du baina horretarako biztanleria kopuru zehatz bat eduki behar dela. Horregatik, uste du udal txikiek nolabaiteko baliabideren bat eduki beharko luketela.

Lehendakariak erantzun du. Lehenengo zioari dagokionez, kontuan hartuko duela dio baina oraindik ez dagoela izapidetze bidean den legerik. Batzorde berezi bat baino ez da sortu. Argitu duenez, oraindik ez dakite proiektu gisa izapidetuko den (hala bada toki entitateen iritzia eskatzera behartuta egongo lirarteke) edo lege proposamen gisa. Edozein modutan, gaiaren inguruko jarraipena eginen dela esan du.

Hauteskunde elkarten inguruan esan du, baikorrak izan beharra dagoela eta epe bat eman behar dela aldaketa lortzen den ikusteko.

Hirugarren gaiari dagokionez gogoratu du, Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin hitzarmena izenpetu duela Federazioak eta onurak ekartzeaz gain berdintasuna toki entitate guztietara iristeko zenbait ekintza barne hartzen dituela.

Dudarik gabe berdintasunerako zerbitzuak toki entitate guztietara heltzea da nahia eta hori lortzen saiatuko direla adierazi du.

Ondoren, Santakarako Udaleko ordezkariak hartu du hitza. Gobernuari behin behineko idazkari lanpostuak betetzeko zerrendak osatzeko beharra helaraztea eskatu du.

Idazkari Nagusiak azaldu duenez, dagoeneko behar hori jakinarazi zaio Gobernuari eta Federazioaren eta Gobernuaren arteko hitzarmen baten bidez konpon liteke. Hala ere, oraingoz, Mapa Berrantolatzeako Legean postu horien betetzea nola geldituko den zain daude.

Zizur Zendeako Udaleko ordezkariak arazoak dituzten udalentsako finantza-erreskate plan bat onesteko iragarri den legearen inguruan galdetu du.

Lehendakariak esan du lege hori arriskuan dauden entitateentzako pentsatua dagoela. Handitzeko aukera dagoen partida bat badagoela adierazi du, eta ona litzatekeela parte hartzea eta zer egin daitekeen ikustea.

Burlatako Udaleko ordezkariak hartu du hitza eta proposatu du Geserlocal erakunde instrumental bihurtzea eta erosketa zentral bat sortzea. Era berean, ondare materialaren inbentarioa egiteko lantalde baten sorrera proposatu du.

Lehendakariak erantzun dio Geserlocalekin lotutako gaiari. Azaldu duenez, dagoeneko aztertzen ari dira erakunde instrumental bihurtzeko aukera. Modu horretan, lizitazio beharrik gabe zerbitzua eman ahalko lieke toki entitateei.

Kontua da etorkizunera begira bideragarritasuna emango liokeen formula egokia aurkitzea.

Erosketen zentral bat sortzeari dagokionez esan du, dudarik gabe oso erabilgarria litzatekeela, gehienbat, entitate txikientzako. Dena den, esan du Plan Estrategikoa egitean kontuan izan beharreko kontuetako bat izanen dela.

Eugiko Kontzejuko buruak hartu du hitza eta esan du Federazioak toki entitateei laguntza eman beharko liekeela mota guztietako finantzazioa lortzeko: estatukoa, Europa mailakoa etab. Izan ere, askotan baliabideak eta aukerak galtzen baitira informazio faltagatik.

Plan Estrategikoari buruzko informazio gehiago eskatu du ere bai.

Lehendakariak jakinarazi du NUKFk interesa duela laguntza horiei buruzko informazioa lortzeko entitate guztiei helarazi ahal izateko. Espainiako Udal eta Probintzien Federazioan ere gabezia eta behar berbera antzeman dela dio.

Plan Estrategikoari buruz esan du, horretarako sortutako lantaldea dagoeneko bildu dela eta pentsatu duela jarraituko duten prozedura. Urtarrilean lehenengo diagnostikoa eta lurraldeko beste federazioekiko erkaketa eskura izanen dituztela gehitu du.

Ondoren, Jarduketan Programa bozkatu egin da.

Aho batez,

#### **ERABAKI DA:**

NUKFren 2019ko Jarduketan Programa onestea.

#### **4. gaia.- NUKFren 2019ko Aurrekontua onestea**

Lehendakariak aurrekontua laburbildu du eta idazkari nagusiari eman dio hitza. Horrek partidarik nabarmenenak azaldu ditu, 2018ko aurrekontuarekin eta likidazioarekin alderik handiena dutenak, alegia.

Ondoren, hitza eman zaie bertaratutakoei:

Garbayo andreak, Cintruenigoko alkatea eta lehen lehendakariordeak, hitza hartu du. Adierazi du ez dagoela ados A mailako euskara itzultzaile-teknikari baten postua sortzearekin horrek dakarren kostuagatik.

Horretaz gain, Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin izenpetutako hitzarmenetik eratorritako Berdintasunerako Programaren aurrekontu partidari dagokionez adierazi du,

Gobernuak hartu beharko lukeela bere gain toki entitateetan langile teknikariak bermatzeko ardura. Berdintasunerako partida horrekin NUKFk gai horretan gero eta ardura handiagoa hartzen ari dela dio.

Bozketara jarrita,

Hogeita lau abstentzio direla,

Gehiengoz,

#### **ERABAKI DA:**

NUKFren 2019ko aurrekontua onestea.

#### **5. gaia.- Galde-eskeak**

Beraskoingo Udaleko ordezkariak jakinarazi du lanean ari direla eskola garraioa 16 eta 18 urte bitartekoentzako doakoa izateko. Udal guztiak animatu ditu helburu horrekin igorri den eskaera izenpetzera.

Lehendakariak gai horrekin adostasuna adierazi du.

Ondoren hitza hartu du legegintzaldiko azken Batzar Nagusia delako. Azken hiru urte eta erdietako balorazio baikorra egin du.

Kargudun guztien parte-hartzea eta NUKFko langile guztiena eskertu du.

Aitortu du denek ahalegin handia egin dutela eta datozen hilabeteetan erritmo berean lanean jarraitzeko deia egin du.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, lehendakari jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko zazpiak laurden gutxi direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut eta sinatu dut.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA,

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.